



“ARABA GARAPEN AGENTZIA, S.A.U.”

2009KO EKITALDIKO MEMORIA

1. OHARRA.- SOZIETATEAREN JARDUERA

Araba Garapen Agentzia, S.A.U. sozietatea 1990eko apirilean eratu zen, Promoción de Infraestructuras Industriales Alavesas, S.A. izenarekin (PRINIA, S.A. siglak izanik), eta helbide hau du gaur egun: Jose Landazuri, 13-15, behea, Vitoria-Gasteiz. Sozietatearen helburua, funtsean, hau da:

“Arabako Lurralde Historikoaren industrializazioa bultzatu eta sustatzea; ildo horretatik, enpresa berriak sortuko dira eta egun daudenak hobetu edo zabaldu, industria ezin hobea lortze aldera.

Halaber, Arabako Lurralde Historikoko jarduera ekonomikoa ere bultzatu eta sustatu nahi du. Horretarako, lurzoru industriala, etxe-lurra eta zerbitzuetarako lurra sustatu, bultzatu, kudeatu eta eraiki egingo dira, baita instalazio eta azpiegitura turistiko eta kiroleterakoak ere, zertarako eta Arabako lurraldea eta bertako jarduera ekonomikoa garatzen eta hobetzen laguntzeko, Arabako Foru Aldundiaren jarraibideekin bat etorritik.

Arabako Foru Aldundiak, foru-erakunde autonomoek, eskubide publikoko enteek eta horien elkarteek erabiliko dituzten eraikuntza-obra eta instalazioak egitea; horretarako, beharrezko aholkularitza- eta kudeaketa-lanak burutuko ditu.”

2009. urtean, ARABA GARAPEN AGENTZIA, S.A.U. nagusi zen taldeko enpresak desegin eta likidatu dira.

2009ko abenduaren 31n, sozietateak beste enpresa batzuetan parte hartu du, baina oraingoan sozietate nagusia izan gabe. 10. oharrean zehazten dira enpresa horiek eta horiei buruzko informazioa.



2. OHARRA. URTEKO KONTUAK AURKEZTEKO OINARRIAK

a) Benetako irudia

Erantsitako urteko kontuak sozietatearen kontabilitate erregistroetatik atera dira. Orokorrean Espainian onartuta dauden eta indarreko legerian jasotzen diren kontabilitate irizpideak betez egin dira, horrela kontuek sozietatearen ondarea, finantzen egoera eta ekitaldian lortutako emaitzak zehatz-mehatz azaltzen dituztelako, bai eta ondare garbian izan diren aldaketak eta eskudiru fluxuen egoeran islatu diren fluxuak ere.

Sozietateko administratzaileek egin dituzte kontuak, eta Akziodunen Biltzar Nagusian onartu behar dira. Aurreikuspenen arabera, aldaketarik egin gabe onartuko dira.

1514/2007 EDren bidez onartutako Kontabilitateko Plan Orokorraren arabera prestatu dira urteko kontuak.

b) Aplikatutako kontabilitate printzipioak, nahitaezkoak ez direnak

Kontuan hartuta Araba Garapen Agentzia, S.A.U. sozietatearen jardueraren ezaugarriak, zenbait eragiketatarako, Kontabilitate Plan Orokorraren higiezin enpresetarako sektore egokitzapenean jasota dauden xedapenak aplikatu dira.



c) Balorazioaren alderdi kritikoak eta ziurgabetasunaren zenbatespena

Sozietatea enpresa publikoa da eta haren ezaugarrien arabera ez dago urteko kontuetan jasotzen diren aktiboen eta pasiboen balioa aldatzeko moduko jarraipenaren arriskurik edo zalantzarik, funtzionamenduan dagoen enpresaren printzipioa betez.

Erantsitako urteko kontuetan, inoiz, Zuzendaritzak egindako zenbatespenak erabili dira aktibo, pasibo, sarrera, gastu eta konpromiso batzuk zenbatzeko. Aztertutako gertakarien kontuak egitean erabilgarri zegoen informaziorik onenarekin egin dira zenbatespen horiek; baina gerta daiteke hurrengo ekitaldietan aldatu beharra dakarten gertakariak ematea eta, orduan, zenbatespen aldaketaren ondorioak onartu behar izatea.

d) Aldaketak kontabilitate irizpideetan

Ekitaldian ez da egin kontabilitate irizpideen ziozko doikuntzarik.

e) Akatsen zuzenketa

Aurreko ekitaldietan gauzatutako eragiketetan doikuntzak egin dira. Horrela, ondare garbia 43.915,63 eurotan murriztu da.



3. OHARRA.- EMAITZEN APLIKAZIOA

Administrazio Kontseiluak Akziodunen Biltzar Nagusian ekitaldiko emaitzen banaketa hau proposatuko du:

Banaketa oinarria	Eurotan
- Galera eta irabazien kontuko saldoa	336.809,24
GUZTIRA	336.809,24

Aplikazioa	Eurotan
- Borondatezko erreserbetan	336.809,24
GUZTIRA	336.809,24

4. OHARRA.- ERREGISTRO ETA BALORAZIO ARAUAK

Partidak baloratzeko eta erregistratzeko aplikatu diren kontabilitateko irizpideak ondoko hauek dira:

a) Ibilgetu ukiezina

Informatika aplikazioak erosketa kostuan balioetsi dira, eta bost urteko epean amortizatuko dira, aktiboa erosi den egunetik hasita.

Ez da aktibatu edo kapitalizatu partida horiei lotutako gasturik.

b) Ibilgetu materiala

Ibilgetu materialean sartutako ondasunak sozietatearen ohiko jardunari daude lotuta eta erosketa prezioan balioetsi dira. Prezio horretan sartuta daude ondasuna funtzionatzen jarri arteko gastu gehigarriak.



Bizitza erabilgarria luzatzea ez dakarten konponketak eta mantentze gastuak galera eta irabazien kontura kargatzen dira zuzenean. Produzitzeko gaitasuna areagotzea edo ondasun bizitza erabilgarria luzatzea dakarten zabalkuntza eta hobekuntza kostuak aktiboan sartu dira horren baliorik handiena bezala. Finantza gastuak ez dira sartu.

Amortizazioko urteko hornidura metodo linealaren bidez kalkulatzen da, ondasun bakoitzerako ondorengo taulan aurreikusita dagoen bizitza baliagarriaren arabera:

	Zenbatetsitako bizitza erabilgarriaren urte kp.
- Eraikuntzak	33,3
- Bestelako instalazioak, tresneria eta altzariak	10
- Garraio elementuak	5
- Informazioa tratatzeko ekipoak	5
- Bestelako ibilgetuak (garraio elementuak)	5

Ekitaldiko amortizaziorako hornidura 47.697,24 euro izan da.

c) Higiezineta inbertsioak

Errentatuta dauden edo errentatzeko diren lurzoruak eta eraikinak higiezineta inbertsio moduan sailkatzen dira.

Errentamendutzat hartzen da sozietateak errentariarekin sozietatearen aktibo bat erabiltzeko eskubidea adostea. Aktiboa denbora jakin batean erabiliko da ordainketak edo kuotak jasotzearen trukean. Baina ez da finantza errentamendua izango.



Eroste prezioarekin baloratzen dira eta modu linealean amortizatzen dira urtean % 3a aplikatuta.

Arriskurik gabeko merkatuko interes tasak erabiliz aktiboen bizi erabilgarrian izango diren eskudiru fluxuak kontabilitateko balioa baino handiagoak dira. Hori dela eta, aplikatu den amortizazioak zentzuz islatzen du aktiboek izan duten balioaren narriadura.

d) Errentamenduak

Sozietateak erosteko aukera ematen duten higiezin errentamendu kontratuak sinatu ditu eta hauek finantza errentamendu moduan hartzen dira.

Izan ere, ez dago errentariak erosteko aukera baliatuko duelako arrazoizko zalantzarik eta, beraz, aktiboaren jabetzak atxikita dituen arriskuak eta onurak eskualdatuko zaizkiola uste da.

Ordainketen balio izendatuarekin erregistratu dira, kontratuak kontratu interesa dutelako.

Interesak galeren eta irabazien kontura egotzi dira sortu diren ekitaldian bertan, interes tasa efektiboaren metodoaren arabera.

e) Ondare tresnak

Taldeko sozietateetako eta sozietate elkartuetako kapitalean egindako partaidetzak eroste prezioarekin jasotzen dira; baina prezioa murriztu egingo da ekitaldian ondarearen balio teorikoa narriatzen bada eta narriatze hori sozietatearen partaidetzari egotzi ahal bazaio.



f) Finantza tresnak

f.1) Finantza aktiboak

- *Kobratu beharreko mailegu eta partidak*

Partida honetan erregistratu dira zenbateko jakin bat duten merkataritzako eragiketak eta merkataritzakoak ez direnak. Horietan sozietateak ordaindutakoa berreskuratzea balioetsi da.

Hasieran eta amaieran arrazoizko balioaren arabera erregistratzen dira: transakzioaren prezioa gehi zuzenean egotzi daitezkeen kostuak.

Irizpide hau aplikatzen da gehienez urte bateko epemuga duten merkataritzako eragiketetan, kontratuzko interes tasa ez badute, epe laburrera kopuru horiek jasotzea espero baita.

Urte batetik gorako epemuga duten eragiketek kontratuzko interes tasa esplizitua dute eta, beraz, adierazitako balorazio irizpidea aplikatzen zaie.

- *Epe laburrerako finantza inbertsioak*

Eratutako gordailuak izendatuaren arabera baloratzen dira, benetan sorrarazitako interesak ekitaldian erregistratuta.



f.2) Balioaren narriadura

Finantza aktiboen liburuetan duten balioaren zuzenketa galeren eta irabazien kontuaren kargura egiten da, narriaduraren ziozko galera badago.

Narriaduraren ziozko galera ebaluatzeko, aldiz, saldo zordunen banakako azterketa egiten da, aspaldikoak direlako edo ezaugarri bereziak dituztelako kobratzeko arriskua dutenak hartuta.

f.3) Finantza pasiboak

Epigrafe honetan sartzen dira erosketen eta zerbitzu emateen ziozko zorrak, baita merkataritzakoak ez diren eragiketen ziozko zordunketak ere, tresna eratorriak ez badira.

Zuzenean egotzi daitezkeen gastuak onartzen diren unean bertan edo beranduago erregistratzen dira, arrazoizko balioan, hau da, transakzioaren prezioan. Balio hau kalkulatzeko, gainera, kontraprestazioaren balioa eranstean da. Irizpide hori aplikatzen da, pasiboak epe laburrera likidatzea aurreikusi delako eta kontratuzko interes tasa ez dutelako.

g) Izakinak

Plan partzial bakoitzaren egoera fisikoa da abiapuntua.

Egoera hori ikusita, lurzorua bi motatakoa da: industria lur garbia eta jabari publikoko lurzorua. Biak batuta, poligonoaren azalera osoa ateratzen da.

Oro har, salbuespenak salbu, industria lurzoruko lurzati garbiak Araba Garapen Agentzia, S.A.U. sozietatearen (edo Foru Aldundiaren) jabetzakoak dira, edo izan dira eta industriak instalatzeko saldu dira.



Industria azalera osoa da oinarritzko kontzeptua, izakinen balioa kalkulatzeko eta urbanizazio kostuak egozteko.

Jabari publikoko lurzoruak laga egin behar dira, eta horrenbestez, ez dute balio inbentariagarririk. Haien kostua industria lurzati garbien gainean egotzi behar da.

Sozietateak lurzoruak erosi eta urbanizatzen ditu, industrialdeak eta eraikinak sustatzeko. Poligono eta eraikin horiek eroste prezioan edo gauzatze balio garbian erregistratzen ditu (bi balioetatik txikienean, betiere). Gauzatze balioa, batzuetan, gizarte eta ekonomia eduki zabalagoko helburuen menpe dago, aurreko 1. oharrean adierazitako sozietate xedeari jarraituz. Eroste prezioa gauzatze balio garbira zuzentzeko, izakinen narriaduragatiko hornidura egiten da.

Landa lurzoruak eta industria lurzati eta eraikinak eroste prezioan edo gauzatze balio garbian balioztatzen dira (bi balioetatik txikienean, betiere).

h) Mozkinen gaineko Zerga

Araba Garapen Agentzia, S.A.U. sozietateak % 99ko hobaria izango du zergaren kuotan, 24/96 Foru Arauak 36. artikuluan ezarritakoari jarraiki. Horregatik, zerga horrek eragin inmateriala du egindako eragiketetan.

Eraginaren zerga oinarria aurreko ekitaldietako zerga oinarri negatiboen bidez konpentsatzen da; zerga kontzeptu horren zioz ez da gasturik sorrarazten.



i) Sarrerak eta gastuak

Diru sarreren eta gastuen erregistroan sortzapean printzipioa aplikatu da. Hau da, ordezkatzeko dituzten ondasun eta zerbitzuen korrante errealak gertatzen denean erregistratu dira diru sarrerak eta gastuak, haietatik eratortzen den moneta edo finantza korrantea gorabehera.

Poligonoetako lurzatiei salmentetatik datozen sarrerak ezagutzeko oinarritzko irizpidea, sarrera horiek formalizazio, eskritura edo salerosketa kontratu egokia duten ekitaldian erregistratzea da. Ondorioz, ekitaldi horretara egozten dira eragiketa bakoitzetik sortutako galera edo irabaziak, hala badagokie, 4.g) oharrean azaldutako sustapenentarako hornidura aplikatuzetik garbi.

j) Hornidurak eta kontingentziak

Hornidurak erraz antzeman daitezke, hornitutako arriskuari lotutako pasiboa ezeztatu den eguna zehaztugabea izaten delako.

Sinatutako konpromisoetan zenbatetsitako benetako kostuaren arabera balioetsi dira, konpromiso horiei dagokien kontratazioa egin ostean.

Bestalde, aurreko ekitaldietako zenbateko hornituak balio gabetu dira, hornitutako arriskua desagertu dela egiaztatzean.



k) Aktiboen eta pasiboen sailkapena: korronteak eta ez korronteak

Balantzean, aktiboak eta pasiboak korronteak eta ez korronteak izan daitezke. Aktiboak eta pasiboak korronteak izaten dira sozietatea ustiatzeko ziklo arruntari lotuta daudenean eta ziklo horretan zehar saltzea, kontsumitzea, gauzatzea edo likidatzea espero denean, edo horien epemuga, besterentzea edo gauzatzea beranduen urtebetean egitea espero denean. Eskudirua edo aktibo likido baliokideak direnean, urte bat baino denbora luzeagoan erabiltzeko muga ezabatuko da.

Ustiapen ziklo arrunta urte batetik beherakoa da. Dena den, Kontabilitateko Plan Orokorra higiezin enpresetara Egokitzeko Arauak aplikatzean, elementu bat izakin edo ibilgetu moduan atxikitzeko aplikatu behar den irizpide mugatzailea erabiliko da, jardueraren xedea kontuan hartuta.

l) Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak

Kutxako eskudirua eta bankuko kontu korronteak sartzen dira epigrafe honetan, baldin eta hurrengo baldintzak betetzen badituzte:

- Eskudiru bihur daitezke.
- Eskuratzean, gehienez hiru hilabeteko mugaeguna zuten.
- Balioa aldatzeko arrisku handirik ez dute.
- Sozietatearen diruzaintzako kudeaketa politikan eta arauetan sartzen dira.



m) Pasiboak langileei epe luzera egindako ordainketengatik

Sozietateak erretiratzeko pentsio plana du langileentzat, eta horren obligazioak Gizarte Segurantzak estaltzen ditu.

Beste alde batetik, plantillako langileen lan baldintzen ondorioz, pentsioen sistema osagarrian ekarpenak egiten ditu. Ekarpeneak gastu moduan erregistratzen ditu.

Plantilla egokitzean edo langileei egotzi ezin zaizkien beste arrazoi batzuk ematean langileak kaleratu behar badira kalte ordaina ordaintzen zaie; bada, kalte ordain horiek kalkulatzeko, lanean eman duten urte kopurua eta zuzendaritzarekin akordio berezirik izan duten hartzen dira oinarri moduan. Kontzeptu horren zioz egindako ordainketa guztiak gastu bezala kontabilizatzen dira, kaleratzeko erabakia ematen den unean bertan.

n) Ingurumen izaerako ondare elementuak

Ingurumenari lotutako jardueretarako aktiboak erosten direnean, kostuak ibilgetuaren inbertsioztat hartuko dira.

Jarduera horren inguruan egiten diren gainerako ordainketak ekitaldiko gastutzat hartuko dira.

o) Transakzioak lotutako enpresekin

Sozietateak transakzioak egin ditu lotutako enpresekin. Bazkide bakarrarekin (Arabako Foru Aldundia) eta taldeko enpresekin (Laudioko Elkartegia, S.A. y Asparrenako Elkartegia, S.A.) egindako transakzioak izan dira garrantzitsuenak, nahiz eta azken horiek ekitaldia ixtean desegin ziren.



Transakzioak balioestean honako irizpideak aplikatu dira:

- “La Blanca” pabiloia kontraprestazio ekonomikorik gabe eraikitzea eta Arabako Foru Aldundiari horretarako finantzaketa ematea, erakundearekin sinatu den hitzarmena betez.
- Sozietateak hari lotutako sozietateei zerbitzuak ematea, merkatu prezioan, emandako zerbitzuen kostuaren arabera kalkulatuta.
- Kreditu interesak eta zorrak, alderdiek ezarri duten kontratuzko interes tasa aplikatuta, Arabako Foru Aldundiak kontratatu duena transakzio guztietarako.

p) Korronteak ez diren aktiboak, saltzeko mantendutakoak

Saltzeko mantendutako korronteak ez diren aktibo esaten zaie kontabilitate balioa salmentaren bidez berreskura dezaketen aktiboak. Horretarako, alabaina, honako baldintzak bete behar dituzte:

- Berehala saltzeko prest egon, oraingo baldintzetan.
- Salmenta egin daiteke, aktiboa saltzeko plana edo konpromisoak ezarri direlako.

Kontabilitate balioarekin balioesten dira, erosteko kostuaren prezioarekin alegia. Baina narriaduraren ziozko zenbatekoa kendu egiten zaie aurreikusitako salmenta prezioa txikiagoa denean.



5. OHARRA.- IBILGETU UKIEZINA

“Aplikazio informatikoak” izeneko partidak ondoko bilakaera izan du:

Kostua	Eurotan
- Hasierako saldoa (2007-12-31)	142.147,49
- Altak	9.360,00
- Bajak	-14.809,90
Azken saldoa (2008-12-31)	136.697,59
- Altak	2.494,40
- Bajak	0,00
Azken saldoa (2009-12-31)	139.191,99

Amortizazio metatua	Eurotan
- Hasierako saldoa (2007-12-31)	-32.297,57
- Altak	-25.939,36
- Bajak	827,74
Azken saldoa (2008-12-31)	-57.409,19
- Altak	-27.578,70
- Bajak	0,00
Azken saldoa (2009-12-31)	-84.987,89

SALDO NETO	54.204,10
-------------------	------------------



6. OHARRA .- IBILGETU MATERIALA

Epigrafe hau osatzen duten partidek mugimendu hauek izan dituzte ekitaldian:

Kostua	Lurzoruak	Eraikinak	Altzaria	Tresna informatikoak	Garraio elementuak	Aurrerakinak eta arribideko ibilgetua	Guztira
- Hasierako saldoa (07-12-31)	1.615.878,62	6.247.561,12	66.276,98	80.670,89	15.055,11	6.159.113,21	14.184.555,93
- Altak	0,00	222.107,74	63.363,10	0,00	0,00	431.082,55	716.553,39
- Bajak	-1.615.878,62	-5.251.357,24	-66.276,98	-56.612,94	0,00	-6.590.195,76	-13.580.321,54
Azken saldoa (08-12-31)	0,00	1.218.311,62	63.363,10	24.057,95	15.055,11	0,00	1.320.787,78
- Altak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
- Bajak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Azken saldoa (09-12-31)	0,00	1.218.311,62	63.363,10	24.057,95	15.055,11	0,00	1.320.787,78

Amortizazio metatua eta balioaren narriadura	Lurzoruak	Eraikinak	Altzaria	Tresna informatikoak	Garraio elementuak	Aurrerakinak eta arribideko ibilgetua	Guztira
- Hasierako saldoa (07-12-31)	0,00	-4.760.525,19	-57.176,98	-71.638,77	-12.225,52	0,00	-4.901.566,46
- Altak	0,00	-30.459,11	-4.756,57	-4.811,59	-2.829,58	0,00	-42.856,85
- Bajak	0,00	4.608.399,52	57.176,98	65.959,15	0,00	0,00	4.731.535,65
Azken saldoa (08-12-31)	0,00	-182.584,78	-4.756,57	-10.491,21	-15.055,10	0,00	-212.887,66
- Altak	0,00	-36.549,35	-6.336,31	-4.811,58	0,00	0,00	-47.697,24
- Bajak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Azken saldoa (09-12-31)	0,00	-219.134,13	-11.092,88	-15.302,79	-15.055,10	0,00	-260.584,90

GUZTIRAKO GARBIA	0,00	999.177,49	52.270,22	8.755,16	0,01	0,00	1.060.202,88
-------------------------	-------------	-------------------	------------------	-----------------	-------------	-------------	---------------------

Ibilgetu materialaren elementu guztiak sozietatearen jarduerari lotuta daude, eta ez daukate zama edo kargarik.

Garraio elementuak guztiz amortizatuta daude eta erabiltzen ari dira; horien kontabilitateko balio gordina 15.055,11 euro da.

Sozietateak kontratatu dituen aseguruen polizek balioa behar bezala estaltzen dute.



7. OHARRA.- ONDASUN HIGIEZINETAKO INBERTSIOAK

Partida honek hurrengo bilakaera izan du:

Kostua	Lurzoruak	Eraikinak	Azken saldoa
- Hasierako saldoa	884.110,96	3.277.855,86	4.161.966,82
- Altak	0,00	166.071,52	166.071,52
- Bajak	0,00	-194.833,12	-194.833,12
Azken saldoa (08-12-31)	884.110,96	3.249.094,26	4.133.205,22
- Altak	1.709.870,42	0,00	1.709.870,42
- Bajak	0,00	-166.071,52	-166.071,52
Azken saldoa (09-12-31)	2.593.981,38	3.083.022,74	5.677.004,12

Amortizazio metatua eta balioaren narriadura	Hasierako saldoa	Altak	Azken saldoa
- Hasierako saldoa	0,00	-118.179,32	-118.179,32
- Altak	0,00	-72.597,69	-72.597,69
- Bajak	0,00	118.179,32	118.179,32
Azken saldoa (08-12-31)	0,00	-72.597,69	-72.597,69
- Altak	-1.709.870,42	-92.490,72	-1.802.361,14
- Bajak	0,00	3.166,33	3.166,33
Azken saldoa (09-12-31)	-1.709.870,42	-161.922,08	-1.871.792,50

GUZTIRAKO GARBIA	884.110,96	2.921.100,66	3.805.211,62
-------------------------	-------------------	---------------------	---------------------

- Sozietateak errentatuta zuen industria pabiloi bat saldu du ekitaldi honetan. Salmentaren prezioa 185.178,37 euro izan da, eta emaitza positiboa 22.273,48 euro izan da.
- Partida honetan, gainera, Subillabide industrialdeko 26 industria pabiloi sustatu dira. Sustapenaren azalera osoa 7.168,28 m² izan da.



Jarraian, 2008ko eta 2009ko ekitaldietako errentamenduen datuak ematen dira:

	2008	2009
- Errentatutako pabilioiak	5	8
- Errentatutako azalera	1.982,89 m ²	2.242,54 m ²
- Errentatutako azaleraren balioa	1.093.470,48	1.241.088,91
- Errentamenduaren ziozko sarrerak	40.452,32	70.909,92

- Sinatutako kontratuen ondorioz hurrengo ekitaldietan honako errentamendu kuotak jasoko dira:

Ekitaldia	Eurotan
2010	83.690,64
2011	90.126,45
GUZTIRA	173.817,09

- Kontratuen iraupena hiru urtekoa da, eta epea amaitzean automatikoki azkendutzat joko dira, erosteko aukeraren eskubidea baliatzen bada izan ezik.

Eskubide hori baliatzeko, eskudirutan diru kopuru bat ordaindu behar da edo, bestela, erosteko aukera duen errentamendu kontratu berria sinatu behar da 9 urte gehiagorako. Honako interesa izango da: hiruhileko Euriborra + 1,5 puntu, eta gutxienez urtean % 2,5.

- Jundizko poligonoan dauden lurzoruen eta instalazioen zati banaezina eskualdatu da ekitaldi honetan. Poligonoa Sociedad Novacero, S.A.L. sozietateak du errentatuta erosteko aukerarekin. Eskualdaketaren zenbatekoa 1.709.870,42 eurokoa izan da, eta zenbateko bera eskualdatu da balioaren narriaduragatik. Lehenago, izakinen kontuan zegoen erregistratuta.



Aktibo honek erosteko aukera duen errentamendu kontratua du Sociedad Novacero, S.A.L. sozietatearekin. Kontratua 2009ko uztailaren 31n berritu zen eta 2011ko uztailaren 31ra arte egongo da indarrean. Baina epe hori igaro ostean, automatikoki ondoz ondoko urteetan luzatu ahal izango da, harik eta alderdietako batek hilabeteko aurretiaz jakinarazi arte kontratua berritu nahi ez duela.

Erosteko aukeraren prezioa ezarrita dago; Araba Garapen Agentzia, S.A.U.rentzat 1.709.870,00 euro. Baina zenbateko horri aurretik ordaindu diren errentamenduak eta aurrerakinak kendu beharko litzaizkioke, guztira 357.328,44 euro.

Erosteko aukera baliatzen ez bada, sozietateak fidantza gisa ordaindutako 134.222,74 euroak itzuli beharko lizkioke Novacero, S.A.L.ri.

Higiezin honek aurreko kargei dagokienez duen egoera aztertzean, balio osoko narriadura aitortu zaio. Gainera, sozietateak egoera balantzearen pasiboan aitortu ditu "Bezeroen aurrerakinak" kontuan ordaindutako aurrerakinak: 189.000,00 euro. Jasotako errentamenduak errentamendu sarrera moduan erregistratzen dira.



8. OHARRA.- ERRENTAMENDUAK

Sozietateak bere jabetzako higiezin errentamendu kontratuak, erosteko aukeradunak, sinatu ditu eta oraindik indarrean ditu. Kontratua amaitzen denean jabetza errentariari eskualdatu ahal izango dio. Hortaz, atxikita dituen arriskuak eta onurak errentariari eskualdatuko dizkiola uste da.

Kontratu horien ondorioz, 2008ko eta 2009ko abenduaren 31n honako saldoak egon dira oraindik kobratu gabe:

	Saldoa 2008-12-31n	Saldoa 2009-12-31n	Guztira
- Epe laburrera	100.834,86	1.535.108,53	1.635.943,39
- Epe luzera	96.260,04	1.425.485,35	1.521.745,39
GUZTIRA	197.094,90	2.960.593,88	3.157.688,78

Ondoko kontratuak eta saldoak daude ordaindu gabe:

	2008			2009		
	Epe luzera	Epe laburrera	Guztira	Epe luzera	Epe laburrera	Guztira
- TAZ Fundazioa	1.221.580,86	80.019,80	1.301.600,66	1.150.937,50	70.643,07	1.221.580,57
- RM Rioja, S.L.	60.816,63	4.850,36	65.666,99	45.908,30	7.688,98	53.597,28
- RM Rioja, S.L.	106.156,69	8.415,28	114.571,97	93.557,58	8.854,68	102.412,26
- Bodegas Los Corzos, S.L.	58.483,07	3.318,34	61.801,41	51.542,06	4.235,86	55.777,92
- Raúl Pascual Acebedo	88.071,28	4.231,08	92.302,36	83.539,91	4.837,47	88.377,38
GUZTIRA	1.535.108,53	100.834,86	1.635.943,39	1.425.485,35	96.260,06	1.521.745,41



Kontratuaren alderdi garrantzitsuenak honakoak dira:

- 2001eko urtarrilaren 20an, sozietateak eta Teknologia Zentro Aeronautikoaren Fundazioak Miñanoko Teknologia Parkean dagoen industria pabiloia alokatzeko kontratua sinatu zuten, erosteko aukerarekin. Kontratua 20 urterako da eta salmenta prezioa 1.631.691,23 euro. Dena den, errentariak edonoiz balia dezake pabiloia erosteko aukera, ordaindu gabe dagoen kopuru nagusia ordainduz.
- 2004ko azaroaren 2an, sozietateak eta RM Rioja, S.L. enpresak Lapuebla de Labarcan dagoen 329,78 m²-ko industria pabiloia alokatzeko kontratua sinatu zuten, erosteko aukerarekin.

Alokairua 12 urterako da eta salmenta prezioa 118.921,06 euro.

Hala ere, errentariak pabiloia eros dezake une horretan ordaindu gabe dagoen kopuru nagusia ordainduz.

- 2008ko maiatzaren 25ean, sozietateak eta RM Rioja, S.L. enpresak Lapuebla de Labarcan dagoen 215,38 m²-ko industria pabiloia alokatzeko kontratua sinatu zuten, erosteko aukerarekin.

Alokairua 9 urterako da. Hala ere, errentariak pabiloia eros dezake une horretan ordaindu gabe dagoen kopuru nagusia ordainduz.



- 2004ko azaroaren 2an, sozietateak eta Bodega Los Corzos, S.L. enpresak Lapuebla de Labarcan dagoen 181,68 m²-ko industria pabiloia alokatzeko kontratua sinatu zuten, erosteko aukerarekin. Alokairua 12 urterako da eta salmenta prezioa 65.515,13 euro. Hala ere, errentariak pabiloia eros dezake une bakoitzean ordaindu gabe dagoen kopurua ordainduz.
- 2008ko ekainaren 2an, sozietateak eta Raúl Pascual Acebedo jaunak Lapuebla de Labarcan dagoen 209,15 m²-ko industria pabiloia alokatzeko kontratua sinatu zuten, erosteko aukerarekin. Alokairua 9 urterako da eta salmenta prezioa 92.302,34 euro. Hala ere, errentariak pabiloia eros dezake une bakoitzean ordaindu gabe dagoen kopurua ordainduz.
- Aldi bakoitzean honako kopuruak kobratu dira:

	2008	2009
- Urte 1era arte	100.834,86	96.260,04
- Urte 1 eta 5 artean	603.393,03	607.967,85
- 5 urtetik gora	931.715,50	817.517,50
GUZTIRA	1.635.943,39	1.521.745,39

- Alokairuaren kuoten bidez kopuru nagusia amortizatu eta korrituak ordaindu dira. Kontratu bakoitzean honako interes tasa sortu da:

	Interes tasa
- TAZ Fundazioa	% 3
- RM Rioja, S.L.	% 4,5
- RM Rioja, S.L.	% 4,5
- Bodega Los Corzos, S.L.	% 4,5
- Raúl Pascual Acebedo	% 4,5



Epemuga heldu baino lehen sortu ez diren interesak 400.000,00 euro dira, gutxi gorabehera.

Gainera, sozietateak, higiezin errentamendu operatiboko kontratu batzuk ditu sinatuta. “Ondasun higiezin etako inbertsioak” izeneko 6. oharrean zehazten dira.

9. OHARRA.- KORRONTEAK EZ DIREN AKTIBOAK, SALTZEKO MANTENDUTAKOAK

Partida honek hurrengo bilakaera izan du:

Kostua	Eurotan
- Hasierako saldoa (2007-12-31)	5.592.549,61
- Altak	2.981.467,97
- Bajak	-2.355.074,13
Azken saldoa (2008-12-31)	6.218.943,45
- Altak	527.230,31
- Bajak	-6.537.605,74
Azken saldoa (2009-12-31)	208.568,02

Balioaren narriadura	Eurotan
- Hasierako saldoa (2007-12-31)	-2.792.601,36
- Altak	-2.981.467,97
- Bajak	1.867.378,09
Azken saldoa (2008-12-31)	-3.906.691,24
- Altak	-166.605,77
- Bajak	4.062.033,25
Azken saldoa (2009-12-31)	-11.263,76

SALDO GARBIA	197.304,26
---------------------	-------------------

Korronteak ez diren baina saltzeko mantendu diren aktibo moduan sailkatu dira saltzeko konpromiso irmoa dutenak edo gero besterentzeko zorrik ez dutenak.



Ekitaldian honako mugimenduak izan dira:

- La Blanca pabiloian egindako obregatiko alta, ondoren Arabako Foru Aldundiari emateko. Obren zenbatekoa 374.250,29 euro izan da eta gero narriaduragatik hornitu da. Obrak amaitzean Arabako Foru Aldundiari eman zaio. Agindu moduan burutu da eta 4.002.033,25 eurori baja eman zaie, narriaduragatiko hornidura eta guzti.
- Llodion pabiloi bat erosteagatiko alta (Laudioko Elkartegia poligonoa). Erosketaren zenbatekoa 130.000,00 euro izan da.
- Jundizko poligonoan (Gasteiz) lurzoru bat erosteagatiko alta eta gero saltzeagatiko baja. Zenbatekoa 230.624,54 euro izan da, eta besterentzearen emaitza positiboa 131.477,20 euro.
- Amurrioko industrialdean eraikin bat saltzeagatiko baja. Zenbatekoa 2.112.706,72 euro izan da, eta besterentzearen emaitza positiboa 152.692,96 euro.
- Lapueblako poligonoan industria pabiloi bat saltzeagatiko baja, eta besterentzearen emaitza positiboa 16.862,20 euro izan da.

Korronteak ez diren baina saltzeko mantendu diren aktiboek honako egoera zuten ekitaldia ixtean:

- Llodion dagoen pabiloia ekitaldian erosi da 130.000,00 eurotan eta saltzeko da.
- Lapueblako poligonoan saltzeko diren pabiloiak, 78.562,02 eurotan. Pabiloi horiek saltzeagatiko konturako aurrerakinak daude, 67.914,89 eurokoak.



10. OHARRA.- ONDARE TRESNAK

Taldeko enpresetan eta enpresa elkartuetan izan diren parte hartzeen balioek honako bilakaera izan dute:

Kostua	Taldeko enpresak	Enpresa elkartuak	Guztira
- Hasierako saldoa	6.449.645,40	25.789.665,00	32.239.310,40
- Altak	0,00	4.479.568,51	4.479.568,51
- Bajak	0,00	0,00	0,00
Azken saldoa (2008-12-31)	6.449.645,40	30.269.233,51	36.718.878,91
- Altak	0,00	3.045.276,00	3.045.276,00
- Bajak	-6.449.645,40	0,00	-6.449.645,40
Azken saldoa (2009-12-31)	0,00	33.314.509,51	33.314.509,51

Balioaren narriadura	Taldeko enpresak	Enpresa elkartuak	Guztira
- Hasierako saldoa	0,00	-1.724.365,35	-1.724.365,35
- Altak	0,00	-98.725,50	-98.725,50
- Bajak	0,00	94.560,05	94.560,05
Azken saldoa (2008-12-31)	0,00	-1.728.530,80	-1.728.530,80
- Altak	0,00	-221.888,19	-221.888,19
- Bajak	0,00	0,00	0,00
Azken saldoa (2009-12-31)	0,00	-1.950.418,99	-1.950.418,99

BALIO GARBIA	0,00	31.364.090,52	31.364.090,52
---------------------	-------------	----------------------	----------------------



Ekitaldian honako mugimenduak izan dira:

Taldeko enpresak

- “Laudioko Elkartegia, S.A.” sozietatea desegin eta likidatzeagatiko baja. Parte hartzearen balioa 5.385.609,37 eurotan ezeztatu da eta likidazio kuota gisa 6.216.355,33 euroko ondare garbia sartu da. Emaidza positiboa 830.745,76 euro izan da.
- “Asparrenako Elkartegia, S.A.” sozietatea desegin eta likidatzeagatiko baja. Parte hartzearen balioa 1.114.036,369 eurotan ezeztatu da eta likidazio kuota gisa 1.886.251,89 euroko ondare garbia sartu da. Emaidza positiboa 772.215,53 euro izan da.

Enpresa elkartuak

- Sozietateak guztira 30.249 akzio harpidetu ditu, 100 euroko balio nominalduna bakoitza. “Arabako Teknologia Parkea, S.A.” sozietatearen kapital handitzearen ondoriozkoak dira akzio horiek.

Ekitaldia ixtean ordaintzeke egon da 3.024.900,00 euroko parte hartzea, “Epe laburrerako hartzekodunak” kontu batean erregistratuta egon dena.

- Sozietateak ekitaldian zehar guztira 566 akzio harpidetu eta ordaindu ditu “Araba Logística, S.A.” sozietatearen kapitala handitzeko. Nominala 16.980,00 euro izan da eta akzioen jaulkipen prima 3.396,00 euro.



Balioaren narriadura

Ekitaldian erregistratu den balioaren narriadura bat dator honako parte hartze hauekin:

	Eurotan
- Arabako Teknologia Parkea, S.A.	192.846,81
- Araba Logística, S.A.	29.041,38
GUZTIRA	221.888,19

Partaidetza duten enpresen (sozietate elkartuen) egoera jarraian azaltzen da:

- “Arabako Teknologia Parkea, S.A.” sozietatearen xedea enpresa ekimena eta inbertsioa bultzatu eta sustatzea da eta horretarako enpresa berritzaileentzako eta goi teknologiako enpresentzako azpiegiturak eraikitzea.
- Sozietatearen egoitza Miñanoko Teknologia Parkea (Araba) – bulego nagusiak.
- Partaidetza ehunekoa: % 33,61
- Balioa liburuetan: 17.858.442,91 euro
- Ondare garbia:

Kontzeptua	Eurotan
- Kapital soziala	50.537.800,00
- Erreserbak	241.433,50
- Emaidza negatiboak	-5.974.406,19
- Ekitaldiaren emaitza (*)	-670.513,39

(*) Ustiapen emaitza: 883.906,61 euro

- Ekitaldian ez da dibidendurik jaso.



- “Centro Intermodal de Transporte y Logística de Vitoria-Gasteiz – CTVI” izeneko zentroaren xedea Gasteizko Garraio Zentroa eta garraiogunea sustatu, instalatu eta ustiatzea da, Gasteizko salgaien trafikoa hobetze aldera.
- Sozietatearen egoitza: Lermendabide, 8 – Jundizko Industrialdea. Vitoria-Gasteiz.
- Partaidetza ehunekoa: % 44,77
- Balioa liburuetan: 7.881.317,31 euro.
- Ondare garbia:

<i>Kontzeptua</i>	<i>Eurotan</i>
- Kapital soziala	15.441.673,00
- Erreserbak	6.245.730,00
- Ekitaldiaren emaitza (*)	-134.496,00

(*) Ustiapen emaitza: 276.828,00 euro

- Ekitaldian ez da dibidendurik jaso.
- “Lautadako Industrialdea, S.A.” sozietatearen xedea da Agurain, Iruña Oka, Kanpezu eta Legutiano udalerrri arabarretan industria ekimena eta inbertsioa bultzatu eta sustatzea.
- Sozietatearen egoitza: Uzbina, 24 – Jundizko Industrialdea (Vitoria-Gasteiz).
- Partaidetza ehunekoa: % 46,67



- Balioa liburuetan: 3.561.875,36 euro.

- Ondare garbia:

<i>Kontzeptua</i>	<i>Eurotan</i>
- Kapital soziala	5.990.331,62
- Erreserbak	1.371.119,20
- Ekitaldiaren emaitza	48.282,10

- Ekitaldian ez da dibidendurik jaso.

- “Aiara- Araneko Industrialdea, S.A.” sozietatearen xedea da Aiara, Laudio eta Amurrio udalerrietan industria ekimena eta inbertsioa bultzatu eta sustatzea.

- Sozietatearen egoitza: Gardea auzoa, z.g. – Cerámica eraikina, 1. ezk. - Laudio (Araba).

- Partaidetza ehunekoa: % 38,93

- Balioa liburuetan: 1.348.469,82 euro.

- Ondare garbia:

<i>Kontzeptua</i>	<i>Eurotan</i>
- Kapital soziala	5.119.083,61
- Erreserbak	1.230.885,18
- Ekitaldiaren emaitza (*)	-55.795,00

(*) Ustiapen emaitza

- Ekitaldian ez da dibidendurik jaso.



- “Araba Logística, S.A.” sozietatearen xedea da jarduera logistikoetarako eraikuntzak ustiatzea.
- Sozietatearen egoitza: San Antonio, 15. Vitoria-Gasteiz.
- Partaidetza ehunekoa: % 1,97
- Balioa liburuetan: 713.985,12 euro
- Ondare garbia:

<i>Kontzeptua</i>	<i>Eurotan</i>
- Kapital soziala	34.600.200,00
- Erreserbak	6.920.532,00
- Emaidza negatiboak	-2.469.104,48
- Ekitaldiaren emaitza (*)	-624.569,51

(*) Ustiapen emaitza: -484.464,29

- Ekitaldian ez da dibidendurik jaso.



11. OHARRA.- FINANTZA TRESNAK

11.a) Finantza aktiboak

Ondoren sozietatearen finantza aktiboak biltzen dituzten partidak xehatuko ditugu 2008ko abenduaren 31ko eta 2009ko abenduaren 31ko datekin, taldeko enpresetan eta enpresa elkartuetan egindako inbertsioak kontuan hartu gabe:

	2008			2009		
	Epe luzera	Epe laburrera	Guztira	Epe luzera	Epe laburrera	Guztira
- Maileguak eta kobratu beharreko beste	2.743.733,29	637.566,79	3.381.300,08	3.836.543,41	231.779,01	4.068.322,42
- Merkataritzako zordunak eta beste bat	0,00	3.359.597,34	3.359.597,34	0,00	1.988.742,51	1.988.742,51
- Beste finantza aktibo batzuk	12,22	11.658.570,58	11.658.582,80	12,22	12.812.461,86	12.812.474,08
GUZTIRA	2.743.745,51	15.655.734,71	18.399.480,22	3.836.555,63	15.032.983,38	18.869.539,01

Maileguak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk

Hona emandako maileguak:

Maileguak	2008			2009		
	Epe luzera	Epe laburrera	Guztira	Epe luzera	Epe laburrera	Guztira
- Higiezin salmentagatik atzeratutako ordainketak	1.208.624,76	536.731,92	1.745.356,68	2.411.058,06	135.518,95	2.546.577,01
- Finantza errent. kobratzeko dauden kuotak	1.535.108,53	100.834,87	1.635.943,40	1.425.485,35	96.260,06	1.521.745,41
- Leia fundazioan parte hartzeko kuotak	602.681,59	0,00	602.681,59	688.788,96	0,00	688.788,96
GUZTIRA	3.346.414,88	637.566,79	3.983.981,67	4.525.332,37	231.779,01	4.757.111,38

Narriadura	2008			2009		
	Epe luzera	Epe laburrera	Guztira	Epe luzera	Epe laburrera	Guztira
- Leia fundazioan parte hartzeko kuotak	-602.681,59	0,00	-602.681,59	-688.788,96	0,00	-688.788,96
GUZTIRA	-602.681,59	0,00	-602.681,59	-688.788,96	0,00	-688.788,96

GUZTIRAKO GARBIA	2.743.733,29	637.566,79	3.381.300,08	3.836.543,41	231.779,01	4.068.322,42
